

LURRA ETA ZERUA

Zeruak beti euria eta euria botatzen zuen. Eta dena lurrari erortzen zitzaion eta egun batean lurrak esan zion zeruari:

- Ez bota euri gehiago, busti egiten naiz eta!!

Orduan zerua elurra botatzen hasi zen eta lurrak esan zion:

- Ez bota elur gehiago, hoztu egiten naiz eta!!

Orduan zerua haizea botatzen hasi zen. Eta lurrak esan zion:

- Ez bota haize gehiago, mina egiten didazu eta!!

Orduan, zeruak esan zion:

- Ez baduzu bi horietakorik nahi, berriro euria botako dut!!

Eta zerua euria botatzen hasi zen eta orduan lurrak sumendia piztu zuen eta zerua kiskali egin zuen eta poz-pozik bizi izan ziren biak.